

ERABAKIA, zeinaren bidez MU Enpresagintzaren alde maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena) 20.2.c) artikuluan aurreikusitako zuzeneko dirulaguntza bat emateko hitzarmena onartzen baita MU Enpresagintzaren alde B Global Talent Programaren III. eta IV. edizioak egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak, Bizkaian aberastasuna sortzen laguntzeko, enpresa-eremuan lehiakortasun jasangarria eta nazioartekotzea bultzatzeko eta lurraldearen garapen orekatua sustatzeko konpromisoari leial, bost jarduera-ardatzetan oinarritutako estrategia integral bat diseinatu du, Bizkaia, talentuarekiko konpromisoa; Ekintzailletza aurreratua, Bizkaiko enpresa-sare berriaren motor gisa; Industria eta zerbitzu aurreratuak, lehiakortasun jasangarrirako apustu indartsuagoa; Bizkaia orekatua eta kohesionatua; eta Bizkaia irekia eta erakargarria; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak 2023-2027 Esparru Estrategiko berria prestatu du, Bizkaia Denontzat, Bizkaia lurralde berritzaile, talentudun, erakargarri eta ireki, kontzentratu eta orekatu gisa kokatzeko, erakundeen arteko lankidetzan eta lankidetzan publiko-

ACUERDO por el que se aprueba el convenio por el que se concede una subvención directa prevista en el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, a favor de MU Enpresagintza, para llevar a cabo la III y la IV edición del Programa B Global Talent.

El Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, fiel a su compromiso de contribuir a la creación de riqueza en Bizkaia, impulsar la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial y promover el desarrollo equilibrado del Territorio, ha diseñado una estrategia integral basada en cinco ejes de actuación: Bizkaia, compromiso por el talento; Emprendimiento avanzado como motor del nuevo tejido empresarial de Bizkaia; Industria y servicios avanzados, una apuesta reforzada por la competitividad sostenible; Bizkaia equilibrada y cohesionada; y Bizkaia abierta y atractiva; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

Para ello, la Diputación Foral de Bizkaia ha elaborado un nuevo Marco Estratégico, Bizkaia Denontzat 2023-2027, cuyo principal objetivo es fortalecer el posicionamiento de Bizkaia como territorio innovador, con talento, atractivo y abierto, conectado y equilibrado,





pribatuan oinarrituta.

Esparru horren barruan, Bizkaiko Foru Aldundia "Bizkaia with the talent" ekimena garatzen ari da, "Bizkaia talentuarekin konpromisoa" estrategiatik eratorria; bi urte baino gehiago daramatza horretan lanean. Ekonomia Sustatzeko Sailak bultzatu du ekimen hori, lurraldean talentua garatu, erakarri eta leialtzeko helburuarekin, enpresek STEM talentua (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) izenez ezagutzen duten talentu zientifiko-teknologikoaren gero eta eskari handiagoari erantzuteko.

"Bizkaia with the talent" estrategia hainbat garapen-fasetako lankidetzaproiektuen eta abian jartzeko dauden beste proiektu osagarri batzuen bidez gauzatzen da. Horien guztien buru 40 erakunde baino gehiago daude, besteak beste, unibertsitateak, lanbide-heziketako zentroak, klusterrak, enpresa-elkarteak, erakundeak eta Bizkaiko enpresa nagusiak.

"Bizkaia with the talent" strategiaren barnean dago MU Enpresagintzaren B Global Talent Programa. Tokiko eta nazioarteko talentua biltzeko programa da. Bere helburua Bizkaiko erakunde liderren eta STEM profila duten bertako eta nazioarteko gazte talentuen arteko bilketa gunea izatea da. Modu horretan, Bizkaiko enpresetan balioa sortuko da eta enpresen benetako erronkak konpontzea sustatuko da.

MU Enpresagintzaren B Global Talent programak 4 edizio ditu, eta lehenengo biak 2022tik 2023ra egin ziren. Lehenengo bi edizioei jarraipena emateko, martxan daude beste bi edizio, zehazki, III.a eta IV.a. Hasierako programa hobetzeko eta bukatutako edizioen esperientzia harturik, hasierako programa pixka bat aldatu da enpresen eta hautagaien arteko bateragarritasun gehiago lortzeko eta kostuetan efizientzia optimizatzeke.

Programa honen bitartez, bertako eta nazioarteko MU (EU4DUAL) eta MTA sarea

basado en la colaboración interinstitucional y la colaboración público-privada.

Dentro de dicho marco, la Diputación Foral de Bizkaia está desarrollando la iniciativa "Bizkaia with the talent", que deriva de la estrategia "Bizkaia compromiso con el Talento" en la que lleva trabajando más de dos años. Esta iniciativa ha sido impulsada por el departamento de Promoción Económica con el objetivo de desarrollar, atraer y fidelizar talento en el territorio para cubrir la creciente demanda de talento científico-tecnológico, conocido como talento STEM (Ciencia, Tecnología, Ingeniería y Matemáticas), por parte de las empresas.

La estrategia "Bizkaia with the talent" se materializa a través de diferentes proyectos colaborativos en distintas fases de desarrollo y otros adicionales pendientes de arrancar. Todos ellos están liderados por más de 40 organizaciones entre las que figuran universidades, centros de formación profesional, clusters, asociaciones empresariales, instituciones y las principales empresas de Bizkaia.

Enmarcado en la estrategia "Bizkaia with the talent" se encuentra el Programa B Global Talent de MU Enpresagintza. Este es un programa de reclutamiento de talento nacional e internacional que tiene como objetivo ser el punto de encuentro entre organizaciones líderes de Bizkaia y jóvenes talentos nacionales e internacionales con perfil STEM, con el fin de generar valor en las empresas de Bizkaia fomentando la resolución de auténticos desafíos para las mismas.

El programa Programa B Global Talent de MU Enpresagintza consta de 4 ediciones habiéndose realizado las dos primeras durante los años 2022 y 2023. Están en marcha dos nuevas ediciones, la edición III y la IV como continuidad a las dos primeras. Con el objeto de mejorar el programa inicial y fruto de la experiencia de las ediciones finalizadas, se ha modificado ligeramente el programa inicial para lograr un mayor encaje entre empresas y personas candidatas y optimizar una eficiencia en costes.

Mediante este programa se pretende reforzar y aprovechar la red nacional e internacional de





indartu eta aprobetxatu nahi da talentua erakartzeko iturri nagusi gisa. Hala, Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat giltzarriak diren sektoreetan eta teknologietan Bizkaiko enpresen benetako erronkak konpontzen lagundu nahi da.

Mondragon Unibertsitatea gizarte-ekimeneko kooperatiba mistoko erakunde independentea da MU ENPRESAGINTZA S. COOP., irabazi-asmorik gabea eta onura publikokoa. Eredu kooperatibo batetik abiatuta pertsonen eta gizartearen hezkuntza eta garapena sustatzen du. Zehazki, fakultateko Ekintzailtza-Mondragon Team Academy arloak negozio berrien sorrera sustatzen du, bai eta berrikuntza eta enpresen eta ekintzaileen nazioarteko ekosistema bat sortzea ere. Ildo horri jarraituz, eta Bizkaira talentua erakartzeko asmoarekin eta lurraldeko enprekin batera, 2022an hasi zen B Global Talent Programaren III. eta IV. edizioak gauzatuko dira.

Hauek dira III. eta IV. edizioaren helburu espezifikoak:

- Bizkaian tokiko eta nazioarteko talentua erakarri eta biltzea, nagusiki, STEM profila dutenak.
- Talentua Bizkaiko enpresen proiektu zehatzei lotzea.
- Lurraldean eragina duen eta interesekoa den ekimena sortzea.
- Bilbo hiriaren eta Bizkaiaren entzute ona sortzea.

Martxan dagoen programak bi edizio berri ditu. III. edizioa 2024ko irailtik 2025eko maiatzera izango da eta IV.a 2025eko ekainetik 2026ko maiatzera.

Edizio bakoitzak honako 4 fase nagusi hauek ditu:

- 1.fasea.- Enpresak erakartzea
- 2.fasea.- Tokiko eta nazioarteko talentua erakartzea eta aukeratzea
- 3.fasea.- Ekitaldia eta Bootcamp B Global Talent
- 4.fasea.- Work in company.

MU (EU4DUAL) y MTA como fuente principal para atraer talento con el fin de contribuir a la resolución de auténticos desafíos en las empresas de Bizkaia en sectores y tecnologías claves para el Territorio Histórico de Bizkaia.

MU Enpresagintza S. Coop perteneciente a la cooperativa mixta de iniciativa social Mondragon Unibertsitatea, es una entidad independiente, sin ánimo de lucro y de utilidad pública que promueve la educación y el desarrollo de las personas y la sociedad desde un modelo cooperativo. En concreto, el área de Emprendimiento-Mondragon Team Academy de la facultad, fomenta la generación de nuevos negocios emergentes, así como la innovación y creación de un ecosistema internacional de empresas, emprendedores y empresas. Siguiendo esta línea, y con el fin de promover la atracción de talento a Bizkaia en conexión con empresas del territorio, va a llevar a cabo la III y IV edición del Programa B Global Talent iniciado en 2022.

Los objetivos específicos de la III y IV edición son los siguientes:

- Atraer y retener talento nacional e internacional preferiblemente de perfil STEM en Bizkaia.
- Vincular el talento a proyectos concretos de empresas de Bizkaia.
- Generar un evento con repercusión e interés en el territorio.
- Generar notoriedad de la ciudad de Bilbao y la región de Bizkaia.

El programa que se está desarrollando consta de dos nuevas ediciones. La III edición transcurrirá entre septiembre de 2024 y mayo de 2025 y la IV edición transcurrirá entre junio de 2025 y mayo de 2026.

Cada una de las ediciones consta de 4 fases principales:

- Fase 1.- Captación de empresas
- Fase 2.- Captación y selección de talento nacional e internacional
- Fase 3.- Evento y Bootcamp B Global Talent
- Fase 4.- Work in company.





Bizkaiko Foru Aldundiak eta MU Enpresagintza S Coopek enpresa finkatuen zein berrien berrikuntzaren eta garapenaren aldeko apustua egiten dute. Izan ere, eraldaketa ekonomikoaren eta sozialaren ezinbesteko palankak dira, eta gaur egun STEM-en prestatuta dauden edo esperientzia duten profesionalak erakartzea beharrezkoa da. Horregatik, talentua erakartzeko iturri nagusi gisa, proiektu honek MUren (EU4DUAL) eta MTAREN tokiko eta nazioarteko sarea aprobetxatzeko eta indartzeko aukera ematen du.

MU Enpresagintza S Coopek laguntza behar du STEM profila duten tokiko eta nazioarteko gazte talentuak erakartzeko B Global Talent programaren III. eta IV. edizioak gauzatzeko.

Mondragon Unibertsitatearen helburuak eta xedeak Ekonomia Sustatzeko Sailaren ildo estrategikoekin bat datozela egiaztatu ondoren, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren 2024ko urriaren 15eko 7979/2024 Foru Aginduaren bidez erabaki zen ofizioz hastea, ekimen propioz, zuzeneko dirulaguntza bat emateko prozedura, STEM profilak dituzten tokiko eta nazioarteko gazteak erakartzeko B Global Talent Programaren III. eta IV. edizioei laguntzeko.

2024ko urriaren 23an MU Enpresagintza S Coopek B Global Talent programaren III. eta IV. edizioak gauzatzeko dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen. Egingo den jardueraren deskribapena, epeak eta aurreikusitako kostuak jasotzen dituen eskabidea erantsi da. Erabaki honen esparruan jasotako jarduketak 2024ko irailaren 1etik 2026ko maiatzaren 31ra bitartean egingo dira eta Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntza eskatuko zaio.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean.

La Diputación Foral de Bizkaia y MU Enpresagintza S. Coop apuestan por la innovación y el desarrollo de las empresas, tanto consolidadas como de nueva creación, porque son palancas fundamentales de transformación económica y social, y en el contexto actual se necesita la atracción de profesionales formados o con experiencia en áreas STEM. Por ello, este proyecto ofrece aprovechar y fortalecer la red nacional e internacional de MU (EU4DUAL) y MTA como fuente principal para atraer talento.

MU Enpresagintza S. Coop solicita ayuda para llevar a cabo la III y IV edición del Programa B Global Talent para la atracción de jóvenes talentos nacionales e internacionales con perfil STEM.

Constatada la coincidencia de objetivos y fines de Mondragon Unibertsitatea con las líneas estratégicas del Departamento de Promoción Económica, mediante mediante la Orden Foral 7979/2024 de 15 de octubre de 2024 de la Diputada Foral del Departamento de Promoción Económica se acordó iniciar de oficio, por propia iniciativa, el procedimiento para la concesión de una subvención directa con el fin de dar apoyo a la III y IV edición del Programa B Global Talent para la atracción de jóvenes talentos nacionales e internacionales con perfiles STEM.

El 23 de octubre de 2024 la entidad MU Enpresagintza S. Coop ha presentado una solicitud de subvención para la ejecución de la III y IV edición del Programa B Global Talent. Se adjunta la solicitud que incorpora la descripción de la actividad a realizar, sus plazos y su coste estimado. Las actuaciones previstas en el marco de este acuerdo se desarrollarán desde el 01 de septiembre de 2024 hasta el 31 de mayo de 2026, solicitándose a la Diputación Foral de Bizkaia una subvención.

Además, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y, para ello, lleva numerosos años trabajando en materia de igualdad.





Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, akordioaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan. Bere aldean, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko, 2021-2024 ekitaldietan.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2024-2027ko Dirulaguntza Plan Estrategikoa dirulaguntza hori aurreikusten du 2. helburu estrategikoa: "Bizkaia, talentuaren aldeko konpromisoa", eta 2.1 dirulaguntzak-helburu espezifikoaren barruan, berriz, "Bizkaian ezagutza eta talentua sustraitzea", 2.1.1 ekintza "Talentua enpresetan txertatzea sustatzea".

2024an zehar proiektu honen lehenengo bi edizioen irismena eta arrakasta ezagutzea eta ebaluatzea estrategikoa eta beharrezkoa da B Global Talent Programa babesten jarraitzeko, Bizkaia lurralde berritzailea, talentuduna, erakargarria, konektatua eta orekatua izan dadin, kalitatezko enplegua sortu eta mantentzeko gai izan dadin, Bizkaia Europako abangoardia ekonomiko eta sozialean mantentzeko. Jarduketa hori zuzeneko dirulaguntza baten bidez izapidetzen da, lagundu beharreko sustapen-jarduerak ebaluatu behar baitira.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 c) artikulua ezartzen du zuzenean eman ahal izango direla, salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko dirulaguntzak.

Bizkaiko Foru Aldundiak pertsonengan eta haien gaitasunetan oinarritutako estrategia koordinatu eta koherente baten aldeko apustua egiten du lurralde lehiakortasun jasangarria lortzeko formula gisa, eta uste du B Global Talent programa gauzatzeak onura handia ekarriko diela lurraldeko enpresei. Izan

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este acuerdo deberán tener en cuenta la perspectiva de género. Por otra parte, el VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2021-2024.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Departamento de Promoción Económica prevé una ayuda dentro del objetivo estratégico 2 "Bizkaia, compromiso por el talento", en el objetivo específico 2.1 "Enraizar conocimiento y talento en Bizkaia", y la acción 2.1.1: "Fomento de la incorporación de Talento en las empresas".

Conocer y evaluar a lo largo de 2024 el alcance y éxito de las dos primeras ediciones de este proyecto se considera estratégico y necesario para continuar apoyando el Programa B Global Talent, con el objetivo de hacer de Bizkaia un territorio innovador, con talento, atractivo, conectado y equilibrado, capaz de crear y mantener empleo de calidad que permita mantener a Bizkaia a la vanguardia económica y social de Europa. Se tramita esta actuación mediante una subvención directa dado que es necesario evaluar las actuaciones de fomento a apoyar.

El artículo 20.2 c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, prevé la posibilidad de conceder de forma directa, con carácter excepcional, aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten una convocatoria pública.

La Diputación Foral de Bizkaia apuesta por una estrategia coordinada y coherente basada en las personas y sus capacidades como fórmula para lograr la competitividad territorial sostenible y considera que la ejecución del Programa B Global Talent aportará un beneficio importante a las





ere, enpresek eskari handia duten STEM arloetan bertako eta nazioarteko talentua erakartzea erraztuko dute eta, modu horretan, Bizkaiko interes publikoari, sozialari eta ekonomikoari mesede egingo dio, Bizkaiaren hazkundera erraztuko baitu. Hori dela eta, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2c) artikuluari dagokionez 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezkotzat jotzen da MU Enpresagintza S COOPi dirulaguntza bat ematea B Global Talent programa garatzeko. Dirulaguntza zuzeneko emakida prozeduraren bidez emango da, eta araubide juridikoa erantsitako hitzarmenean ezarritakoa izango da.

Azaldutako guztiak laguntzaren interes publikoa, soziala eta ekonomikoa egiaztatzen du, eta proposatzen diren helburuak lortzeko, deialdi publikorik ez erabiltzea justifikatzen du.

Erabaki honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiak MU Enpresagintza S Coopen alde emandako zuzeneko dirulaguntza bideratzea eta onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak eta konpromisoak ezartzea da.

Hitzarmen honek arautzen duen dirulaguntza ez da lehia askea babesteko Europako araudian araututako estatu-laguntza bat (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. Paragrafoan xedatutakoaren arabera 2016/C262/01); izan ere, prestakuntza-zentroen hezkuntza zerbitzuak eta irakaskuntza-jarduerak (haien eraketa-helburuen artean dago jakintza eta ikerketaren transmisioa) kontzeptu horren eremutik kanpo daude, ez baitaukate gaitasun nahikorik lehia askea aldatzeko, ezta estatuen arteko merkataritza trukeak aldatzeko ere.

Ebazpen honen xede den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1 d) artikulua irakurketa koordinatutik ondoriozta daitekeenez. Izan ere, artikulua

empresas del territorio ya que va a favorecer la atracción de talento nacional e internacional en áreas STEM muy demandados por estas y así beneficiar al interés público, social y económico de Bizkaia en la medida que va a favorecer su crecimiento. Por esta razón y, en virtud de lo dispuesto por el artículo 26 en relación al 20.2c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, se considera necesario el otorgamiento a MU Enpresagintza, S. COOP de una subvención para el desarrollo del Programa B Global Talent mediante el procedimiento de concesión directa cuyo régimen jurídico será el establecido en el convenio que se acompaña.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de la ayuda y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.

La finalidad del presente acuerdo es canalizar la subvención directa de la Diputación Foral de Bizkaia a favor de MU Enpresagintza S. Coop, así como establecer las condiciones y compromisos que asume el beneficiario.

La subvención cuyo régimen establece este acuerdo no constituye una ayuda de estado regulada en la normativa europea de protección de la libre competencia (artículo 107, apartado 1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, TFUE 2016/C262/01), dado que los servicios de educación y las actividades de docencia de centros de formación, que tienen entre sus misiones fundacionales la transmisión del saber y la investigación, están fuera del alcance de dicho concepto, al no tener capacidad de alterar la libre competencia ni afectar a los intercambios comerciales entre estados.

La competencia sobre la materia objeto de esta resolución corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1 d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local donde se establece que es





horretan ezartzen denez, aldundien eskumena da ekonomiaren eta gizartearen garapena sustatzeko lankidetzara, gainerako administrazio publikoek arlo horretan dituzten eskumenekin bat etorriz.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 61/2024 Foru Dekretuak, 1. artikuluan, sail honi esleitzen dio, beste jardun-arlo batzuen artean, enpresa-sustapenarekin, enpresa berrien sorrerarekin eta kultura ekintzailea sustatzearekin, enpresen dibertsifikazioarekin eta gorabidean dauden eta hazten ari diren sektoreak sendotzearekin eta talentua eta ezagutza erakarri eta sustatzearekin zerikusia duten jarduera guztiak bultzatzea eta garatzea.

Horregatik guztiagatik, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9.1 artikuluan eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onetsitako Dirulaguntzen Foru Erregelamenduaren 12.3 artikuluan ezarritakoa betez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari honako erabaki-proposamen hau aurkeztu zaio, berak onetsi dezan:

ERABAKIA

Lehenengoa

Bizkaiko Foru Aldundiaren (IFZ: P4800000D) eta MU Enpresagintza S. COOPen (IFZ: F20068490) arteko hitzarmena egiteko baimena ematea, B Global Talent programaren III. eta IV. edizioak gauzatzeko. Helburua Bizkaiko erakunde liderren eta STEM profila duten bertako eta nazioarteko gazte talentuen arteko topaketa gune izatea da. Modu horretan, asmoa enpresen benetako erronkak konpontzea eta Bizkaiko enpresek behar duten talentuari erantzuna ematea da.

Hitzarmen horren testua erantsi da, eta alderdiek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak eta klausulak jasotzen ditu, bai eta hirugarren puntuan adierazitako

competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social, de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

El Decreto Foral 61/2024, de 6 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, en su artículo 1 atribuye a este departamento, entre otras áreas de actuación, la del impulso y desarrollo de todas las actividades que tengan relación con la promoción empresarial, la creación de nuevas empresas y la promoción de la cultura emprendedora, la diversificación empresarial y la consolidación de sectores emergentes y en crecimiento y la atracción y promoción del talento y el conocimiento.

Por todo ello, en virtud de lo establecido en el artículo 9.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 12.3 del Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, se somete a la aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la siguiente propuesta de:

ACUERDO

Primero

Autorizar la celebración de un convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia con NIF P4800000D, y MU Enpresagintza, S. COOP con NIF F20068490 para llevar a cabo la III y IV edición del Programa B Global Talent que tiene por objeto ser el punto de encuentro entre organizaciones líderes de Bizkaia y jóvenes talentos nacionales e internacionales con perfil STEM para la resolución de auténticos desafíos para las mismas, con el fin de dar respuesta a la necesidad de talento no satisfecha por parte de las empresas de Bizkaia.

En el citado convenio cuyo texto se adjunta, se recogen las obligaciones y compromisos asumidos por las partes, incluida la aportación financiera indicada en el punto tercero, y las





finantza-ekarpena ere Gainera, aplikatzekoa den araudi orokorrarekin batera, dirulaguntza honetan aplikatu beharreko araubidea ezartzen du. Hitzarmenaren testua eranstena da.

Bigarrena

Baimena emateak berekin dakar, inplizituki, dirulaguntza ematea onartzea, eta baldintza suntsiarazle honen mende geratzen da: baldintzak betetzea eta hitzarmena formalizatu aurretik laguntza honen onuradun izateko debekurik ez izatea.

Hirugarrena

Dirulaguntzaren zenbatekoa hirurehun eta berrogeita hamabost mila zazpiehun eta berrogeita hamabost euro eta hogeita hemeretzi zentimo (355.755,39€) da eta aurrekontuko partida honen kargura egingo da: 0803/426106/44300 2022/0053 zenbakiko proiektua eta a urte hauetan izango dira:

2024:	175.000€
2025:	100.000€
2026:	80.755,39€
Guztira	355.755,39€

Laugarrena

Ahalmena ematea ekonomia sustatzeko foru diputatuari aipatutako hitzarmena hori sinatzeko eta garatzeko, aplikatzeko eta exekutatzen beharrezko xedapen guztiak, eta horien artean honako hauek: dirua itzultzeko espedienteak izapidetzea eta ebatzea, bai eta dirulaguntzarako baldintzak aldatzea, laguntzaren kopuruari dagokiona izan ezik.

Bosgarrena

Erabaki hau MU Enpresagintzari, Ekonomia Sustatzeko Sailari jakinaraztea, eta haren berri ematea Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari.

cláusulas que, junto a la normativa general aplicable, establecen el régimen a aplicar en esta subvención. Como anexo al presente acuerdo se incorpora el texto del convenio.

Segundo

La autorización conlleva implícitamente la aprobación de la concesión de la subvención que queda sometida a la condición resolutoria de que se cumplan los requisitos y no estar incurso en ninguna de las prohibiciones para adquirir la condición de beneficiaria de esta ayuda en un momento anterior a la formalización del convenio.

Tercero

La cuantía de la subvención asciende trescientos cincuenta y cinco mil setecientos cincuenta y cinco euros con treinta y nueve céntimos (355.755,39€) y se realizará con cargo a la partida presupuestaria 0803/426106/44300/ proyecto presupuestario 2022/0053 y se distribuirá en las siguientes anualidades:

2024:	175.000€
2025:	100.000€
2026:	80.755,39€
Total:	355.755,39€

Cuarto

Facultar a la diputada foral de promoción económica para la firma del referido convenio, así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo, aplicación y ejecución, incluyendo la tramitación y resolución de eventuales expedientes de reintegro, así como de modificación de las condiciones de la subvención, excepto en lo que se refiere a su cuantía máxima.

Quinto

Notificar este acuerdo a MU Enpresagintza, al Departamento de Promoción Económica y dar traslado del mismo al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.





Enpresen Sustatzeko Zerbitzuko burua. / La jefa del Servicio de Promoción Empresarial. ISABEL SARRIONANDIA-IBARRA FERNÁNDEZ

O.E./Vº Bº

Ekintzailatza, Talentu eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusia. / El director general de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial. JOSEBA MARIEZKURRENA CUESTA

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio / De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua / La diputada foral de Promoción Económica. AINARA BASURKO URKIRI



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA MU ENPRESAGINTZAREN ARTEKO HITZARMENA, B GLOBAL TALENT PROGRAMAREN III. ETA IV. EDIZIOAK ANTOLATZEKO

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y MU ENPRESAGINTZA PARA LLEVAR A CABO LA III Y LA IV EDICIÓN DEL PROGRAMA B GLOBAL TALENT

BILDU DIRENAK

REUNIDAS

Ainara Basurko Urkiri andrea erakunde horren izenean eta beraren ordezkari gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2024ko azaroaren 28an Erabakiaren bidez emandako ahalmenik erabiliz.

Ainara Basurko Urkiri, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando en virtud de las facultades otorgadas mediante Acuerdo de la Diputación Foral de 28 de noviembre de 2024.

Lander Beloki Mendizabal (NAN: 34100489E), MU ENPRESAGINTZA S. COOP sozietatearen izenean eta ordezkari gisa, zuzendari nagusi den aldetik, Oñatiko notaria Mercedes Henaiz Gomez-Deganoaren aurrean 2015eko uztailaren 21ean emandako eskritura publikoaren arabera (protokolo-zenbakia: 665).

Lander Beloki Mendizabal, con DNI 34100489E, actuando en nombre y representación de MU ENPRESAGINTZA S. COOP con NIF F20068490 como director General, en virtud de la escritura pública otorgada ante la notaria de Oñati, Mercedes Henáiz Gómez-Dégano, el 21 de julio de 2015, con nº 665 de su protocolo.

Aldeek aitortzen dizkiote elkarri honako hitzarmena gauzatzeko beharrezko gaitasuna eta eskumena, eta hauxe

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud

ADIERAZTEN DUTE:

EXPONEN

LEHENENGOA

Ekonomia Sustatzeko Sailak, talentua eta ezagutza erakartzeko eta sustatzeko eduki daukan eskumena baliatuz, jarduera ugari garatzen ditu pertsonen talentua aberasteko, zientziaren eta teknologiaren garapen sendoa ezaugarri duen gizarte berritzailea bultzatzeko eta, bidenabar, hura aplikatzeko eta enpresa-sektorerara transferitzeko helburuz.

PRIMERO

El Departamento de Promoción Económica en el ejercicio de su competencia de impulso de la atracción y promoción del talento y el conocimiento desarrolla numerosas actuaciones tendentes al desarrollo del talento de las personas, al impulso de una sociedad innovadora con un fuerte desarrollo de la ciencia y la tecnología y su aplicación y transferencia al sector empresarial.

BIGARRENA

Hitzarmen honen helburua MU Enpresagintzari B Global Talent programaren III. eta IV. edizioak gauzatzeko emango zaion zuzeneko dirulaguntzaren baldintzak eta konpromisoak ezartzea da. Helburua Bizkaiko erakunde liderren eta

SEGUNDO

Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa a Mu Enpresagintza para lleva a cabo la III y la IV edición del Programa B Global Talent que tiene por objeto ser el punto de



STEM profila duten tokiko eta nazioarteko gazte talentuen arteko topaketa gunea izatea da. Modu horretan, asmoa enpresen benetako erronkak konpontzea eta Bizkaiko enpresek behar duten talentuari erantzuna ematea da.

HIRUGARRENA

B Global Talent Programa "Bizkaia with the talent" ekimenaren barnean dago, eta aurreko hori, era berean, "Bizkaia, Talentuarekiko konpromisoa" estrategiaren barnean; Bizkaiko Foru Aldundiak bi urte baino gehiago daramatza horretan lanean. Ekonomia Sustatzeko Sailak bultzatu du ekimena, lurraldean talentua garatu, erakarri eta fidelizatze aldera, enpresek gero eta gehiago eskatzen baitute talentu zientifiko-teknologikoa, hau da, STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) arloko talentua.

LAUGARRENA

Bizkaiko Foru Aldundiak eta MU Enpresagintzak enpresa finkatuen zein sortu berrien berrikuntzaren eta garapenaren aldeko apustua egiten dute, ekonomia eta gizartea eraldatzeko funtsezko palankak direlako. Gaur egun STEM arloetan prestatuta dauden edo esperientzia duten profesionalak erakarri behar dira. Horrenbestez, proiektu honetan MUren (EU4DUAL) eta MTaren tokiko eta nazioarteko sarea aprobetxatzea eta indartzea eskaintzen da, talentu hori erakartzeko iturri nagusia baita.

BOSGARRENA

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren aldeko konpromisoari eusten dio, eta, horregatik, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jardura guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira, batez ere enpresa-

encuentro entre organizaciones líderes de Bizkaia y jóvenes talentos nacionales e internacionales con perfil STEM para la resolución de auténticos desafíos para las mismas, con el fin de dar respuesta a la necesidad de talento no satisfecha por parte de las empresas de Bizkaia.

TERCERO

El Programa B Global Talent se enmarca en la iniciativa "Bizkaia with the talent", que deriva de la estrategia "Bizkaia compromiso con el Talento" en la que la Diputación Foral de Bizkaia lleva más de dos años trabajando. Esta iniciativa ha sido impulsada por el departamento de Promoción Económica con el objetivo de desarrollar, atraer y fidelizar talento en el territorio para cubrir la creciente demanda de talento científico-tecnológico, conocido como talento STEM (Ciencia, Tecnología, Ingeniería y Matemáticas), por parte de las empresas.

CUARTO

La Diputación Foral de Bizkaia y Mu Enpresagintza apuestan por la innovación y el desarrollo de las empresas, tanto consolidadas como de nueva creación, porque son palancas fundamentales de transformación económica y social. En el contexto actual se necesita la atracción de profesionales formados o con experiencia en áreas STEM, por lo que en este proyecto se ofrece aprovechar y fortalecer la red nacional e internacional de MU (EU4DUAL) y MTA como fuente principal para atraer dicho talento.

QUINTO

La Diputación Foral de Bizkaia mantiene además un firme compromiso a favor de la efectiva igualdad de mujeres y hombres y, por ello, todas las actuaciones que realiza el Departamento de Promoción Económica se desarrollan teniendo en cuenta la perspectiva de género y fijando medidas tendentes a reducir las desigualdades aún existentes,



munduan.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, erabakiaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko, 2021-2024 ekitaldian.

Hitzarmen hau Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan aurreikusitako generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena eta ebazteko neurriak desberdintasunak eta berdintasuna sustatzea sartu da. Hitzarmen hau idazteko aplikatu dira azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuak, generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak finkatzen dituenak, ezarritako jarraibideak aplikatu dira.

SEIGARRENA

Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

ZAZPIGARRENA

Hitzarmen honen eremua eta bertan gauzatu beharreko alderdiak zehaztu behar dira, izan ere, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko

especialmente en el mundo empresarial.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este acuerdo deberán tener en cuenta la perspectiva de género. El VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2021-2024.

Se incorpora a la tramitación de este convenio, el Informe de evaluación previa de impacto de género y medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad previsto en el artículo 20 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en cuya redacción se han aplicado las Directrices establecidas en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las pautas para la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

SEXTO

En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

SÉPTIMO

Es preciso determinar el ámbito de este convenio y los aspectos que en el mismo se han de materializar ya que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las



5/2005 Foru Arauak 20.2 c) artikuluan xedatzen duenez, salbuespen gisa zuzenean eman ahal izango direlako interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten dirulaguntzak, edo deialdi publikoa oztokatzen duten behar bezala justifikatutako beste batzuk.

Beste alde batetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Erregelamenduak 52. artikuluan ezartzen ditu dirulaguntza mota horiek arautzen dituzten arauak jasoko dituzten alderdiak. Era berean, ezartzen da espedientean dirulaguntza kudeatzen duen organoaren txosten bat sartu beharko dela, honako hauek justifikatzeko: dirulaguntzaren izaera berezia; interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak; eta deialdiaren zailtasuna justifikatzen duten beste arrazoi batzuk.

Horrenbestez, bi aldeek adostu dute hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmena arautuko duten klausulak

KLAUSULAK

1.-Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak

1. Hitzarmen honen helburua MU ENPRESAGINTZA S COOPi (IFZ: F20068490) B Global Talent Programaren III. eta IV. edizioak egiteko emango zaion dirulaguntza zuzenaren baldintzak eta konpromisoak ezartzea da.

2. Programa honen helburua Bizkaiko erakunde liderren eta STEM profila duten bertako eta nazioarteko gazte talentuen arteko topaketa gune izatea da. Modu horretan, asmoa enpresen benetako erronkak konpontzea eta Bizkaiko enpresek behar duten talentuari erantzuna ematea da.

subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone en su artículo 20.2.c) que podrán concederse de forma directa, con carácter excepcional, aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 52 establece los extremos que incluirán la normas que regulen este tipo de subvenciones debiendo asimismo incluirse en el expediente un informe del órgano gestor de la subvención justificativo su carácter singular, de las razones que acreditan el interés público, social, económico o humanitario, u otras que justifican la dificultad de su convocatoria.

Así pues, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se regirá por las siguientes

CLÁUSULAS

1.-Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto

1. El presente convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa a MU ENPRESAGINTZA, S. COOP, con NIF F20068490, para llevar a cabo la III y la IV edición del Programa B Global Talent.

2. El presente programa tiene como objetivo ser el punto de encuentro entre organizaciones líderes de Bizkaia y jóvenes talentos nacionales e internacionales con perfiles STEM para la resolución de auténticos desafíos para ellas, con el fin de dar respuesta a la necesidad de talento no satisfecha por parte de las empresas del territorio.



3. Programaren III. eta IV. edizioak gauzatu, helburu espezifiko hauek lortu nahi dira:

- Bizkaian bertako eta nazioarteko talentua erakarri eta biltzea, lehenetasunez, STEM profila dutenak.
- Talentua Bizkaiko enpresen proiektu zehatzei lotzea.
- Lurraldean eragina duen eta interesekoa den ekimena sortzea.
- Bilbo hiriaren eta Bizkaiaren entzute ona sortzea.

4. Edizio bakoitzak honako 4 fase nagusi hauek ditu:

1.fasea.- Enpresak erakartzea

Programa STEM profila duen talentua erakarri nahi duten Bizkaiko ETEei zuzenduta dago. Enpresek lantzen ari diren erronka edo proiektu orokorrak definituko dituzte, hala, programaren parte hartzaileek beren ezagutza arloak eta egin ditzaketen ekarpenak frogatu ditzaten. Programan parte hartuko duten enpresen kopurua, gutxienez, 15 izango da edizio bakoitzeko.

2.fasea.- Tokiko eta nazioarteko talentua erakartzea eta aukeratzea

MUren (EU4DUAL) eta MTAREN tokiko eta nazioarteko sarea erabiliko da talentua erakartzeko iturri nagusi gisa. Prozesuetan parte hartzen duten talentuen kopurua gutxienez 40 izango da edizio bakoitzeko.

3.fasea.- Ekitaldia eta Bootcamp B Global Talent

Proposamena Torre BATen topaketa ekitaldi bat eta bost eguneko bootcamp bat antolatzea da programa aurkezteko eta Networking bat ere bai, harreman profesionalak ezartzeko eta enpresa parte hartzaileen eta talentuaren artean dinamikak sortzeko. Ekitaldietan parte hartuko duten talentuen kopurua edizio bakoitzeko gutxienez 20 pertsonakoa izango dela

3. Mediante la ejecución de la III y IV edición del programa se pretenden los siguientes objetivos específicos:

- Atraer y retener talento nacional e internacional preferiblemente de perfil STEM a Bizkaia.
- Vincular el talento a proyectos concretos de empresas de Bizkaia.
- Generar un evento con repercusión e interés en el territorio.
- Generar notoriedad de la ciudad de Bilbao y la región de Bizkaia.

4. Cada una de las ediciones consta de 4 fases principales:

Fase 1.- Captación de empresas

El programa está orientado a las pymes vizcaínas que necesiten incorporar talento con perfil STEM. Las empresas definirán retos o proyectos genéricos en los que estén trabajando para que los participantes en el programa demuestren sus áreas de conocimiento y posibilidad de contribución a los mismos. El número de empresas que participarán en el programa se estima en un mínimo de 15 por cada edición.

Fase 2.- Captación y selección de talento nacional e internacional

Se hará uso de la red nacional e internacional de MU (EU4DUAL) y MTA como fuente principal para atraer talento. El número de talento participante en los procesos se estima en un mínimo de 40 por cada edición.

Fase 3.- Evento y Bootcamp B Global Talent

Se propone incluir un evento de encuentro y un bootcamp en la Torre BAT de 5 días de duración para la presentación institucional del programa y un Networking para establecer relaciones profesionales y generar dinámicas entre empresas participantes y talento. El número de talento participante en los eventos se estima en un mínimo de 20 personas por cada edición.



kalkulatzen da.

4.fasea.- Work in company.

Parte hartzaileak 3 hilabetez Bizkaiko enpresetan egongo dira enpresen erronkak konpontzen laguntzen. Work in Companyk STEM profila duen nazioko eta nazioarteko talentua aurreko fasean parte hartu duenaren berdina izango da, eta, beraz, edizio bakoitzean gutxienez 20 pertsona egongo direla kalkulatzen da. Enpresa bakoitzeko parte-hartzaile bat egongo da, eta bi parte-hartzailek programa enpresa berean egiteko aukera izango dute.

